



DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2024

SEGURTASUNA

1. Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak..... 2



1.-..... Dirulaguntza-programaren izenburua

Joko patologikoari buruzko informazio- eta prebentzio-jarduerak egiteko diru-laguntzak.

2.- Araua

AGINDUA, 2024ko uztailaren 11koa, Segurtasuneko sailburuarena, irabazi-asmorik gabeko erakundeek EAEn, 2024ko ekitaldian, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia egiten duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-ebazpena (EHAAri Hiperesteka)

Programa araua:

[AGINDUA, 2024ko uztailaren 11koa, Segurtasuneko sailburuarena, irabazi-asmorik gabeko erakundeek EAEn, 2024ko ekitaldian, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia egiten duena. \(EHAA 144 zk. uztailaren 23koa\)](#)

Deialdia:

[AGINDUA, 2024ko uztailaren 11koa, Segurtasuneko sailburuarena, irabazi-asmorik gabeko erakundeek EAEn, 2024ko ekitaldian, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko dirulaguntzen deialdia egiten duena. \(EHAA 144 zk. uztailaren 23koa\)](#)

Emate ebazpena:

[EBAZPENA, 2024ko urriaren 10ekoa, joko eta ikuskizun zuzendariarena, joko patologikoari buruzko informazio eta prebentzio unibertsaleko jarduerak egiteko irabazi asmorik gabeko erakundeei dirulaguntzak emateko balorazio batzordeko kideak izendatzen dituena. \(EHAA 208 zk. urriaren 24koa\)](#)

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Prebentzio-programak garatzeko laguntza ekonomikoak, joko patologikoan sor daitezkeen ohiturei edo jokabideei sustagarria kentzera bideratutakoak, arreta berezia jarritz kolektibo ahulenei, hala nola adingabeei edo adimen-gaitasunak mugatuta dituzten pertsonei.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean. (Era berean, dirulaguntza-programan jasotako neurrien zerrenda ere jasoko da, hala badagokio, emakumeen eta gizonen arteko eta kolektibo gutxituekiko desberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko, bai eta natura-ondarearen kontserbazioa sustatzeko ere)

Onuradunak irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko erakundeak dira; batzuk jokabide-adikzioen eta substantziadun adikzioen prebentzioan eta tratamenduan aritzen dira batez ere; beste batzuk, berriz, gizarte- eta hezkuntza-arloko esku-hartzera bideratuta daude, eta beste batzuk, berriz, kalteberatasun-egoeran dauden pertsonei laguntzeko erakundeak dira.

Oro har, proiektuak beste urte batzuetako proiektuetan oinarritzen dira, datak eta artatutako pertsonen kopurua aldatzen da, edo lankidetzan aritu diren zentro edo erakundeen izenak.



Guztira, 205.291,38 euro eskatu dira. Beraz, balorazioa egiteko, jolasaren alderdiak nabarmendu dira. Era berean, garrantzi handiagoa eman zaie sentsibilizazio- eta informazio-ekintzei materialak argitaratzeari baino.

Aurten puntuazio handiagoa izan dute jokoan eragin handiagoa duten proiektuak, eta gutxiago jokabide-adikzioen prebentzio orokorrean eragiten dutenak.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Programa kopurua	6	13
Aurkeztutako eskariak	6	13
Onartutako eskariak	6	12
Berriz aurkeztutako programak/ jasangarritasuna	6	8
Programa berriak	1	4
Parte hartzaile kopurua	1200	10000*
Talde zaugarrietako parte hartzaile kopurua (adingabeak, gazteak, gaitasun urridun pertsonak...)	1000	5000*
Giza baliabideen kopurua (hezitzaileak, irakasleak... boluntarioak zenbatu gabe)	17	50*
Kolaborazioak beste erakunde batzuekin (administrazioak, ikastetxeak, gizarte erakundeak, enpresa pribatua...)	10	34*
Argitalpen kopurua (web/ aldizkariak/ gidak/ panfletoak...)	5	11*

* justifikazioen arabera kalkulaturako datuak